

# ENPRESEN konfiantza

2024KO 3. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa




LABORAL  
kutxa

# 2024KO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




## 0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2024ko hirugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Aurreko hiruhilekoaren antzeko ingurune ekonomikoa erakutsi dute emaitzek. Zehazki, enpresen % 10,6k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 62k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 27,5ek, okerrera egingo duela.




# 1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, ikuspegi egonkorra dute enpresek 2024ko hirugarren hiruhilekoari begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 19,7k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 57ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 23,2k okerrera egingo du.




## 2 | JARDUERA

JARDUERAk, ostera, 2024ko hirugarren hiruhilekoan hobera egingo du % 9,2ren iritziz, eta % 26,8ren arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 64,1ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, emaitzek iragartzen dute eskabideek behera egingo dutela apur bat eta prezioak egonkorak izango direla. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 19,7ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 23,2ren iritzian, txikitu. Enpresen % 57ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 8,5ek uste du igo egingo direla, eta % 83,8k, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspeni erreparatuta, erantzunen % 91,1en arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 9,9k uste du errendimendu handiagoa lortuko duela.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi ezkorxeagoa erakusten dute hirugarren hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek egonkortu egin dituztela inbertsio-planak.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 12,7k uste du gora egingo duela **2024ko hirugarren hiruhilekoan**. % 17,6ren iritziz, beriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, galdetutako enpresen % 69,7 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 81ek erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 12k langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 7k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2024KO BESTE ADIERAZLE BATZUK




## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA

Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, **47,4ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekokoaren antzekoa (**49,8koa** izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi ezkorxeagoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2024ko hirugarren hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50 inguruan dagoenez, jarduera egonkor antzean dago, eta beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutakoa baino apalagoa da. Espainian, esaterako, 55,7ko datua lortu zen apirilean, eta Eurogunean, 52,3koa maiatzean. Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 30ek uste du hobera egin duela eta % 27,5ek okerrera egin duela. Bestalde, % 42,5en iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitzen dute.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARA EDO I+G-KO EKIMENETARA bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestatuen % 76,1 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 4,2k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 83,1en ustez, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 9,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 7,7k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 83,1ek erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 7k dio hobetu egin dela, eta, % 9,9k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2024AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 | ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

Maiatzaren 7tik 28ra bitartean, EAEko 142 enpresari egindako inkesta.

---